

# HAUR HEZKUNTZAKO GELEN ANTOLAKETA ESPAZIALAREN ETA ERABILERAREN DESKRIBAPENA ETA AZTERKETA

**Tesiaren egilea:** Lorea Jauregi Elizondo

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Didaktika eta Eskola Antolakuntza

**Tesi-zuzendaria:** Pedro Ayerbe Echeberria

**Tesiaren laburpena:**

Donostiako bi ikastetxe hautatu dira gure ikerketa-lanerako: Martuteneko Arantzazuko Ama ikastola eta Altzako Harri Berri-Oleta ikastetxea. Haur Hezkuntzako hainbat gelaren eta gelaz kanpoko espazioen antolaketa eta erabilera deskribatzea eta aztertzea izan da helburu nagusia. Lehen zikloko eta bigarren zikloaren hasierako haurrek osatu dute gure lagina (2-3-4 urteko ikasleak).

Haurren eskolatzeko eta egokitzapen-aldiaren bilakaera behaketa zuzenaren bidez jasotzearekin batera, autonomia eta elkarrekintzan haur hauek ematen joan diren aurrerapausoak jaso eta aztertu ditugu, bai eta andereñoen papera eta parte-hartzea ere, eta andereñoek haur eta gurasoekin dauzkaten harremanak.

Hiru proposamen didaktiko erabili ditugu gure lanean: gelaren eta gelaz kanpoko espazioaren antolaketa-ereduen artean, High Scope Eredua; ikastetxean oinarritutako antolaketa-ereduen artean, Frabboni-rena; eta komunitate osoa barne hartzen duen eredua, Italiako Reggio Emilia-koa.

Bialdi bereiz daitezke gure ikerketan: 2000-02 ikasturteetan burututakoa eta 2007-08 ikasturtean eginikoa. Bigarren aldi honetako helburua izan da aipatutako bi ikastetxeen arteko konparazioak egitea, hau da, auzo eta ikastetxeetan bost urteko epean izandako aldaketa eta hobekuntzak deskribatu eta aztertzea.

Ondorioen artean hauexek nabarmendu nahi genituzke:

- a. Eguneroko zereginean andereñoek erabiltzen duten metodologia, haurrari eskaintzen dioten atentzioa eta babesa, konfiantza eta ziurtasuna, ezagutza eraikitze bitartekaritza eta estrategiak egokiak dira.
- b. Gabezia estrukturaleri eta diseinuarekin zerikusia duten hainbat elementuri soluzioa aurkitzeko beharra dago, erabiltzaileen osasuna eta erosotasuna bermatu dadin. Ondorio honen barruan sartuko genituzke, besteak beste, gela barruko eta kanpoko jardueren arteko loturak egin ahal izateko trantsizioko espazioen falta eta daudenen baldintza eskasak (patio estali gabekoak edo gaizki estaliak, 2 urteko haurrekin patio horietako koska eta eskailerek sortzen dituzten «beldur» eta arazoak, naturarekin harreman zuzena eta erregularra izateko oztopoak, manipulazioa eta esperimendazioa eskainiko dituzten jarduerak egiteko «eremu berde» baten premia, negutegi edo lorategi itxien beharra).

- c. Zentzumen guztien garapen aberatsagoa eta pertsonala egiteko, espazio polisentsorialak eskaintzea komeni da.
- d. Gure ikastetxe-ikastoletan egiten den lan garrantzitsua gehiago dokumentatu beharra dago (curriculumaren publikotasun-funtzioan aurrerapausoak eman behar dira, hezkuntza barruko nahiz kanpoko eragileek hobeto ezagutu eta ulertu dezaten eskoletan egiten den lana).
- e. Eskola auzora edo herrira nahiz hirira hedatzeko irtenbideak bilatzen eta aurrerapausoak martxan jartzen joan ahal izateko, premiazkoa da administrazioak inplikazio handiagoa izatea eta baliabide gehiago eskaintzea.